

MASMOVIL MEDIACIÓN DE SEGUROS SL sozietateak eskainitako WEBGUNEaren erabilera-baldintzak

MASMOVIL MEDIACIÓN DE SEGUROS SL sozietatea (IFZa: B44992477), egoitza soziala Bruselas hiribidea 38, 28108, Alcobendas, Madril helbidean duena, AJ0319 gakoarekin inskribatuta dagoena Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiaren aseguru- eta berraseguru-hornitzaileen erregistro administratiboan, MásMóvil taldeko aseguru-etxe lotua da, eta, etxeko aseguru- produktuarentzako, aseguru-enpresa honen agentzia lotu moduan dihardu: MAPFRE ESPAÑA, COMPAÑÍA DE SEGUROS Y REASEGUROS SA, egoitza soziala Pozueloko errepidea 50, 28222, Majadahonda, Madril helbidean duena, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiaren aseguru- eta berraseguru-hornitzaileen erregistro administratiboan C0058 gakoarekin inskribatua.

1. Xedea

MASMOVIL MEDIACIÓN DE SEGUROS SL sozietateak <https://seguros.euskaltel.com/hogar> webgunea (aurrerantzean, WEBGUNE) jarri du jendearentzat eskuragarri, modu askean, doan, era ez-esklusibo eta besterezinean.

MASMOVIL MEDIACIÓN DE SEGUROS SL sozietateak WEBGUNE ezarriko du ematen dituen aseguru-produktuei buruzko —kasu honetan, etxeko aseguru- produktuak buruzko— informazioa emateko. WEBGUNE hori WEBGUNE sar daitezkeen erabiltzaile guztiei (aurrerantzean, Erabiltzaileak) zuzenduta dago.

Xedapen hauek arautzen dute Erabiltzaileak WEBGUNE sartzeko eta erabiltzeko modua. Webgunera sartu, han nabigatu eta bertako funtzionaltasun edo edukiren bat erabili aurretik, irakurri arreta handiz erabilera-baldintza hauek.

Erabilera-baldintza hauek aplikagarriak izango dira Erabiltzaileen esku jartzen den WEBGUNEAREN edozein bertsio, berrikuspen, eguneratze edo hobekuntzatan, non eta MASMOVIL MEDIACIÓN DE SEGUROS SL sozietateak ez duen aurkakorik adierazten.

Erabilera-baldintza hauek ez dute eragozten WEBGUNEAREN bidez eskainitako zerbitzu edo funtzio batzuek beste erabilera-baldintza berezi batzuk eduki ahal izatea. Dena den, zerbitzu edo funtzio horiek aktibatu aurretik hartzaileek kontsultatu egin ahalko dituzte. Ildo horretan, aseguru-produktuak beti egongo dira kontratatutako aseguru-polizen baldintzen menpe, eta haien arduradunak aseguru-etxeak izango dira beti.

MASMOVIL MEDIACIÓN DE SEGUROS SL sozietateak, etorkizunean, Erabiltzaileei eduki edo zerbitzu berriak edo erraztasun gehigarriak eman ahalko dizkie, doakoak zein ordainpekoak, prestazio eskuragarriak handitzeko. Halaber, MASMOVIL MEDIACIÓN DE SEGUROS SL sozietateak eskubidea du WEBGUNEAN txertatutako eduki, zerbitzu edo tresnetako edozein alde bakarrez bertan behera uzteko. Aipatutako erraztasunek erabilera-baldintza hauei jarraituko diete, eta, baldintzotan aurreikusi gabekoan, erraztasun bakoitzarenei, baldintza espezifikorik izanez gero.

2. WEBGUNEaren funtzionamendua

MASMOVIL MEDIACIÓN DE SEGUROS SL sozietateak ez du ziurtatzen, ezta bermatzen ere, WEBGUNEAREN erabilera etenik edo akatsik gabekoa izango denik. Erabiltzaileek WEBGUNE erabiltzen duten modua haien beren erantzukizuna izango da. MASMOVIL

MEDIACIÓN DE SEGUROS SL sozietatea ez da izango WEBGUNEAREN funtzionamendu desegokiaren arduradun, eta inola ere ez du ardura bere gain hartuko funtzionamendu txarra hirugarrenei egotz dakizkiekeen mantentze-lanen, gorabeheren edo kalteen ondoriozkoa bada, edo Erabiltzaileen ekipoen konfigurazio desegokiak sortua bada, edo Erabiltzailearen ekipoak WEBGUNEA erabiltzeko ezinbesteko sistema informatikoak jasateko adina gaitasun ez duelako gertatua bada. MASMOVIL MEDIACIÓN DE SEGUROS SL sozietatea ez da izango aseguru-produktuen, produktu horien polizen eta aseguru-etxeek produktu horiek kudeatzen dituzten moduaren arduradun; eta bezeroak aseguru-produktua zein aseguru-etxerekin kontratatu zuen, hura izango da erantzule.

MASMOVIL MEDIACIÓN DE SEGUROS SL sozietateak emandako aseguru-produktuen kontratuko eta aurrekontratuko informazioa bezeroei kontratazio-prozesuak iraun bitartean emango zaie, eta, gainera, WEBGUNEAN bertan eskuragarri dago.

3. Jabetza intelektualeko eskubideak

WEBGUNEA eta bertan dagoen eduki, zerbitzu, aplikazio eta informazio oro eta haiekin lotutako bestelako sorkuntzak (aurrerantzean, kontzeptu horiek guztiak Lotutako Sorkuntzak izendatuko dira) jabetza industrialaren eta intelektualaren legediak babesten ditu, eta haien titulartasuna MASMOVIL MEDIACIÓN DE SEGUROS SL sozietatearena edo hirugarrenena da. Ondorioz, Erabiltzaileek konpromisoa hartzen dute jabetza industrialaren edo intelektualaren eskubiderik ez urratzeko, eta guztiz debekatuta dago sorkuntza horiek osorik edo partez erreproduzitzea, publikoki komunikatzea, banatzea edo nolnahi ustiatzea (besteak beste, kopiatzea, aldatzea, saltzea, alokatzea, maileguan ematea), bai eta segurtasun-elementuak kentzea eta sorkuntza eratorrietan oinarritutako obra berriak sortzea ere; halaber debekatuta dago Lotutako Sorkuntzak suntsitzea, aldatzea, deskonpilatzea, erabilezin uztea edo kaltetzea,

Erabiltzailea izango da berak edo beraren kargu daudenek egiten dituzten eta jabetza intelektualeko edo industrialeko eskubideen titularraren eskubideei eragiten dieten arau-hausteen erantzule bakarra, eta MASMOVIL MEDIACIÓN DE SEGUROS SL sozietatea salbuetsita geldituko da aipatutako erabilera horren ondorioz sozietatearen aurka aurkeztutako edozein erreklamazio judizial edo estrajudizialeatik.

4. Iraupena

Erabiltzaileek baldintza hauek onartzen dituzte WEBGUNERA sartzen direnetik. MASMOVIL MEDIACIÓN DE SEGUROS SL sozietateak WEBGUNEA muga gabe jarriko du eskuragarri, salbu eta WEBGUNEA Erabiltzaileen esku jartzeari uztea erabakitzen badu.

Erabiltzaileek baldintza hauek edo indarreko araudia urratuz gero, MASMOVIL MEDIACIÓN DE SEGUROS SL sozietateak WEBGUNERAKO sarbidea mugatu ahalko die, eta bere interesak defendatzeko dagozkion eskubideak erabili ahalko ditu. Baldintza hauetan jaso gabekoan, Espainiako legedia aplikatuko da.

5. WEBGUNEAREN erabilera pertsonala

Erabiltzaileek konpromisoa hartzen dute WEBGUNEA beren erabilera pertsonalaren beharretarako soilik erabiltzeko, eta sarbidea hirugarrenei ez lagatzeko.

Erabiltzaileek WEBGUNEA zuzen eta arduraz erabiliko dute, erabilera-baldintza hauei eta indarreko legediari jarraituz, eta ez dute erabiliko legez kanpoko edo gehiegizko xedeetarako; besteak beste, hauetarako, baina hauetara mugatu gabe:

Hirugarrenen eskubideak edonola urratzea, jabetza intelektualeko eta/edo industrialeko eskubideak, intimitate pertsonalerako eta familiarerako eskubidea eta/edo norberaren irudirako

eskubidea barne.

MASMÓVIL MEDIACIÓN DE SEGUROS SL sozietateak, MásMovil taldeko konpainiaren batek edo aseguru-etxeek edo hirugarrenek emandako edukietan eta zerbitzuetan, eta ekipamenduetan eta/edo programetan eta haiek dituzten fitxategietan eta dokumentuetan kalteak, aldaketak eta/edo baimenik gabeko deskargak sortzen dituzten edo sor ditzaketen jarduketak (birusen bat sartzea edo antzekoak barne).

Iruzurrezko bitartekoen bidez WEBGUNEA, web-orriak, mezu elektronikoak edo beste erabiltzaile batzuen edo hirugarrenen sistemak erabiltzea, aldatzea edo haietan esku hartzea, haien baimenik gabe.

Zuzenean edo esteken edo bestelakoen bitartez erakusgai jartzea, zabaltzea, bidaltzea, argitaratzea edo banatzea honelakoak: legez kanpoko edukiak, eduki lizunak, pornografikoak, indarkeriazkoak, abusuzkoak, iraingarriak, xenofoboak, umiliagarriak, engainuzkoak, legearen, moralaren edo ordena publikoaren aurkakoak, jardunbide arriskutsuak, indarkeriazkoak, arriskutsuak edo osasunerako kaltegarriak eragiten edo goratzen dituztenak.

Klausula honetan ezarritako betebeharrak urratzeak edo iruzurrezko jokabideak izateak ahalmena emango dio MASMOVIL MEDIACIÓN DE SEGUROS SL sozietateari WEBGUNERAKO sarbidea mugatzeko, eta, gainera, bere interesak, MásMovil taldeko gainerako konpainienak edo hirugarrenenak defendatzeko bestelako ekintzak ere egin ahalko ditu.

6. Datuen babesa

Zure datu pertsonalen tratamenduari buruzko informazioa eskuratzeko, gure Pribatutasun Politika eta gure Cookieen Politika kontsulta dezakezu. Hala ere, aseguru-produktu bat kontratatu duen bezero bat bazara, aplikagarria izango zaizu, gainera, zure aseguru-polizaren datuen babeseko klausula, baita aseguratzaillearen Pribatutasun Politika eta Cookieen Politika ere.

7. Orokorrak

Baldintza hauetan jaso gabekoan, Espainiako legedia aplikatuko da, eta, zehazki, jabetza industrialaren eta intelektualaren arloko Espainiako legedia, aurkakorik xedatu ezean.

Baldintza hauek MASMOVIL MEDIACIÓN DE SEGUROS SL sozietateak aldatu ahalko ditu, edozein unetan, legezko arrazoiengatik, edo arrazoi tekniko, operatibo edo ekonomikoengatik, edo zerbitzu- edo merkatu-arrazoiengatik. Kontratuko aldaketa horiek eta, hala badagokio, WEBGUNEA behin betiko ixtea Erabiltzaileei jakinaraziko zaie. Erabilera-baldintza hauetako bat deuseza, baliogabea edo eraginik gabekoa dela adierazten bada, ez du eraginik izango gainerako baldintzen baliotasunean edo eraginkortasunean. Hau da, baldintza horiek lotesleak izango dira alderdientzat.

MASMOVIL MEDIACIÓN DE SEGUROS SL sozietateak edo MásMovil taldeko beste konpainia batek ez badu erabiltzen Baldintzetan edo indarreko legedian jasotako eskubide bat edo ekintza bat, ez da ulertuko MASMOVIL MEDIACIÓN DE SEGUROS SL sozietatearen eta gainerako konpainien eskubideei formalki uko egin zaienik.

8. Erreklamazioak

Erabiltzaileek WEBGUNEAREN inguruko intzidentziaren edo zalantzaren bat badaukate, MASMOVIL MEDIACIÓN DE SEGUROS SL sozietatearekin harremanetan jarri ahalko dira, konpontzeko, bide hauetakoren batetik:

- MASMOVIL MEDIACIÓN DE SEGUROS SL sozietateari zuzendutako idatzi bat egin eta helbide honetara bidaliz: Avenida Bruselas 38, 28108, Alcobendas, Madril; edo bezeroen arretarako telefonora deituz: 918 366 486 / 900 810 694
- Intzidentziaren edo desadostasunaren jatorria aseguru-produkturen bat bada, Erabiltzaileak aseguru-etxeetara joko du.

Alderdien artean kontratu honen interpretazioari eta betearazteari buruz desadostasunik sortuz gero, Espainiako araudiari jarraituz ebaztuko dute Espainiako epaitegiek eta auzitegiek.